

2018KO URTARRILAREN 29AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTSUAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA.
- 3.- OSTATUA KUDEATZEKO BALDINTZEN KONTRATUAN ALDAKETAK EZARTZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.
- 4.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.
- 5.- GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA. POSTA ZERBITZUAREN LEHEN LUZAPENA.
- 6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 7.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).
Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).
Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).
Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).
Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).
Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Maria Teresa Rodrigo Albizuri andereak, Hauteskundeetako Batzorde Zentraletik Zegama Lantzen taldeko zinegotzi kargua hartu ahal izateko kredentziala aurkezten du.

Idazkariak egiaztatu du zinegotzi hautatu guztiek beraien ondasun eta interesen aitorpena aurkeztu dutela.

Zinegotzi hautetsiek kargua formalki hartzeko hitzeman edo zin egin behar dutela ikusirik, kargu hartzaileari honakoa adierazi zaio.

¿Hitzematen edo zin egiten al duzu zintzotasunez beteko dituzuela zinegotzi karguan dituzuen betebeharrak, Zegamako herriarekiko leialtasunez eta indarrean dagoen araudian agintzen dena ontzat hartuz?

Kargu hartzaileak, Hauteskunde Erregimen Orokorraren Lege Organikoak bere 108. atalean eta ezargarria den legedian adierazitakoaren arabera, legeak horrela agintzen duelako, kargua hartzearen onarpena adierazten du, honek suposatzen dituen betebeharrak zintzo beteko dituela adieraziz, eta ondorioz, kargua hartzen du.

2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA.

Alkateak, adierazten du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentutik, "Gipuzkoako eragileen datu basea garatzeko datu-trukaketa" arautzeko hitzarmena bideratzeko informazioa jaso dela.

Zentzu honetan, hitzarmena onartzea interesgarria dela iritziz, honen onarpena egitea proposatzen da.

Hitzarmenaren helburuak, xedeak eta betebeharrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehen.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuarekin, "Gipuzkoako eragileen datu basea garatzeko datu-trukaketa" arautzeko hitzarmena lizenpek ematen dituen zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena onartzea, honako honen arabera:

"GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUAREN ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ENTITATEEN KONTAKTU DATUAK LAGATZEARI BURUZKOA

BILDU DIRA

Batetik, **Imanol Lasa Zeberio** jauna, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak foru diputatua.

Bestetik, Udaleko Alkatea, **(alkatearen izen-abizenak)**, haren izenean eta ordezkari izan dituen eskumenei esker.

Bi alderdiek elkarri behar besteko gaitasun juridikoa aitortzen diote ordezkari izan dituzten organismo egintza honetara makurtzeko, eta lankidetzan hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute termino hauetan:

AURREKARIAK

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak jardun esparru eta funtzio hauek esleituta:

- a) Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza.
- b) Foru Aldundiaren, eta Batzar Nagusien nahiz Arartekoaren harremanak eta komunikazioak koordinatzea.
- c) Legezketasunaren barne kontrola, aholkularitza juridikoa, oro har, eta Foru Aldundiaren eta haren organoen ordezkari izan eta defentsa.
- d) Udalen nahiz udalez gaindiko erakundeen mugaketa esparruan Foru Aldundiak dituen eskumenak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Foru Erregistroa eta i) paragrafoan aipatzen diren gaitetan udalei aholkularitza ematea.
- e) Departamentuaren arteko koordinazioa eragitea araugintza egutegi bat ezartzeko.
- f) Foru Aldundiak dituen eskumenak Gipuzkoako Lurralde Historiko Batzar Nagusietako hauteskunderen eragile den heinean.
- g) Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
- h) Argitalpenak.
- i) Funtzio Publikoa, antolakuntza eta informazio sistemak, langileen araubide juridikoa eta lanbide sistemak lizaera nazionalerako gaikuntza duten udal funtzionarioak.
- j) Parke mugikorra.
- k) Babes zibila, suhiltzaileak eta salbamendua.
- l) Departamentu askotako zerbitzuak.
- m) Foru sektore publikoaren jardueren eta ondasun eta interesen erregistroa.
- n) Modernizazio politikak, informazio eta komunikazio sistema korporatiboak eta administrazio elektronikoa.
- o) Gardentasuna koordinatzea.
- p) Informazioaren gizarterako zerbitzuak eta sistemak. q) Herritarren partaidetza.
- r) Kanpo harremanak.
- s) Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

II. Funtzio horiek betetzeko ezinbestekoa da entitateei, pertsonari eta gizarterari oro har Gipuzko Foru Aldundiaren politiken, programen, zerbitzuen eta ekimenen berri ematea. Beraz, lurralde osoan komunikazioa kanalizatzeko helburuarekin, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak Gipuzkoako Eragilearen Datu Basea sortzea erabaki du, Foru Aldundiaren laguntzaile daitezkeen enpresa, elkarte eta entitate eragilearen kontakturako informazioa kudeatzeko balioko du Entitate laguntzaile hauei buruzko datuen hasierako bilketarako informazio-iturri publikoak erabili

(errola publiko irekiak).

III. Datu basean gordetako lurraldeko entitate eragileen kontakturako datuen eguneraketa eta egiazkotasuna bermatzeko helburuarekin, interesgarritzat jo da udalen titularitatekoak diren errolda administratiboetako datuak erabiltzea, horietan agertzen baitira udalerrietako entitateen inguruko datuak.

IV. Hitzarmena gauzatzeak dakar Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak telematikoki egiaztatu ahal izatea udalaren erroldetan gordetzen diren kontakturako datuak eta Gipuzkoako Eragileen Datu Baseko datuak. Entitate eragileekin komunikazio arina eta eraginkorra mantendu ahal izateko datu eguneratuak izatea da helburua.

V. Datuak egiaztatzeako tramieta ARAZI IKT SL enpresak kudeatuko du, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak hala eskatuta.

VII. Horregatik guztiagatik, lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea erabaki dute bi alderdiek, klausula hauek arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da ezartzea, batetik, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak zein baldintzaren arabera tratatuko dituen udalerrietatik jasotako entitateen kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean gordetako datuak egiaztatzeako, eta, bestetik, zein den foru departamentu horrek zaindu beharreko konfidentzialtasun esparrua.

BIGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuen konfidentzialtasuna eta tratamendua.

Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak adierazten du ezagutzen duela informazio osoa eta, bereziki, eskura duen izaera pertsonaleko informazioa erabat konfidentziala dela Horregatik, bere ardurapean, betekizun hauek ditu:

- Tratatuak diren datuetako entitateen berariazko baimena lortzea.
- Informazioa lehenengo klausulan deskribatutako xederako erabiltzea, eta hirugarrenengoi inola ez ematea.
- Indarrean dagoen arau esparruaren arabera –zehazki, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesturiko Lege Organikoa eta gura garatzeko erregelamenduaren arabera– legokiokoen bidez betekizun betetzea.
- Hirugarrenengoi informaziorik ez komunikatzea edo ezagutaraztea, ezta informazio hori gordetzeko bada ere.
- Informazio horretarako sarbidea ematea, soilik, hura ezagutu gabe beren betebeharrak bete dituzten langileei.

Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren ardurak sekretua gordetzeko egin beharra betearaztea, horretarako behar diren neurriak hartuz.

Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua eta departamentu horretako langileak atal honetan ezarritako konfidentzialtasun betebeharraren eta sekretu profesionalaren mende egongo dira.

HIRUGARRENA.- Segurtasun neurriak.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak konpromiso hau hartzen du: beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa neurriak hartuko ditu eskura duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna –bereziki, izaera pertsonaleko informazioarena– zaintzeko eta, horrela, datuen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe eskuratzea ekiditeko.

LAUGARRENA.- Printzipio aplikagarriak

Hitzarmen honetan, printzipio eta arau hauek beteko dira:

- Datuak egokiak izango dira, dauden beharren eta funtzioen arabera.
- Proporzionaltasuna egongo da eskatutako datuen eta eskaeraren helburuaren artean.
- Datuak igorri eta horietan sartzeko bideak seguruak izango dira.
- Eraginkortasuna eta kostuak murriztea.
- Datuak transferiezinak izango dira.

Nolanahi ere, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak aurretiazko baimen eskatuko dio entitate interesdunari kontakturako datuak Gipuzkoako Eragileen Datu Basean eguneratu aurretik. Baimen hori beti idatzirik utziko da dagokion espedientean.

BOSGARRENA.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea lortzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak entitateen kontakturako datuetara mugatuko dira soilik. Datu hauek eskatuko dira, funtsean: Izena, IFK, JEZ, posta kodea, emaila, kontakturako telefono zenbakia, kontakturako pertsona.

Hitzarmenaren xedea lortzeko metodologiari dagokionez, datuak lortu eta egiaztatzeko ardura izango duen ARAZI S.L. enpresak, sistema informatikoak erabiliko ditu soilik, hala nola, SFTP, FTPS, SSL edo antzekoak. Kasu guztietan, sistema horiek bete egin beharko dituzte izaera pertsonaleko datuen babeserako araudiak eskatutako segurtasun, zuzentasun eta konfidentzialtasun berme guztiak.

SEIGARRENA.- Ez betetzeak

Informazio hori behar ez den bezala erabiltzeak edo isilpean gordetzeko obligazioa ez betetzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilez gain, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulego edo 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutako Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagozkier funtzioak kaltetu gabe, alderdiren batek hitzarmen honetan jasotako obligazioaren betetzen ez duen kasuetan, beste alderdiak eskubide osoa izango du hitzarmena berehala indargabetzeko.

Edozein arrazoirengatik hitzarmena indargabetuko balitz, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak berehala itzuli beharko du hitzarmen hau betetzeko eskura izan duen informazio guztia, euskarria edozein izanik ere.

Informazio hori itzuli arte, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak behar bezala gordeko ditu datu horiek.

ZAZPIGARRENA.- Erantzukizuna.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuak erantzun egingo die hitzarmen honetan ezarritako obligazioetakoren bat ez betetzetik eragindako kalte eta galera guztiei, berak edo informaziorako sarbidea duen langileren batek sorrarazitakoei.

ZORTZIGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau izenpetzen den momentuan jarriko da indarrean.

Lau urteko indarraldia izango du, izenpetzen den egunetik kontatzen hasita. Gehienez ere beste lau urte luzatu ahal izango da, non eta ez den indargabetzen edo alderdiren batek ez duen berariaz salatzen.

Adostasunaren adierazgarri eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute bi aletan, goiburuan ageri den tokian eta egunean.”

Bigarrena.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Zegamako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

3.- OSTATUA KUDEATZEKO BALDINTZEN KONTRATUAN ALDAKETAK EZARTZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak, 2015eko martxoaren 30ean egin zuen bilkuran, “Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua” Juan Manuel Negredo Zalacain jaunari esleitzea erabaki zuen.

Kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguko bosgarren atalak adierazitakoaren arabera, kontratuak bi urteko iraupena izango du eta epe hori urtez urte luzatu ahal izango da, bi aldeek horrela adierazi eta adosten badute, luzapen eta guzti, gehienez sei urtekoa izango delarik.

Udalbatzarrak, 2017ko maiatzaren 22an egin zuen bilkuran, adierazitako kontratuaren urtebeteko luzapena onartu zuen, esleipendunaren adostasunarekin.

Luzapen berria bideratzeko izapideak emanik, Alkateak adierazten du, zerbitzuaren kudeatzaileak kontratuaren prezioa egokitzeko eskaera egin zuela, hileroko ordaindu beharreko zenbatekoa 1.210,00 eurora (BEZ barne) jaitsiz.

Bilkurakideak, zerbitzuaren kudeaketaz eztabaidatzen dute.

Kontratazioaren baldintzak ikusirik eta kontratazioan eta zerbitzuan dauden aurrerakinak aipatuz, garrantzizkoa irizten da zerbitzua eskaintzen jarraitzea. Zentzu horretan, eta prezioaren aldaketak kontratuaren xedean suposatzen duen aldaketa azalduz, hau onartzea proposatzen da.

Eskaera aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- Adierazitakoaren arabera, Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratuan kudeatzaileak ordaintzen duen hileroko zenbatekoa, 1.210,00 eurotan (BEZ barne) ezartzea, zenbateko hori, hurrengo hileroko fakturan (otsailan) aplikatuko delarik.

Bigarrena.- Aldaketa horrekin, eta bi aldeen borondatearekin, Juan Manuel Negredo Zalacain jaunarekin “Zegamako Ostatuaren zerbitzua ustiatzeko kontratua” urtebetez luzatzea, 2019ko apirilaren 30a arte.

Hirugarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

4.- UDAL POLIKIROLDEGIA, IGERILEKUA ETA BERTAKO TABERNAREN ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko martxoaren 8an egin zuen bilkuran, Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko lanen lizitazioa arautuko duen baldintzen plegu ekonomiko-administratiboa eta teknikoak onartu zuen.

Kontratazio prozedura bideratu ondoren, Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 17an Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari (55.556,00 euro gehi 11.666,76 eurotan (BEZ %21) (guztira 67.222,76 euro) esleitzea erabaki zuen.

Kontratazioa arautzen duen baldintzen pleguan adierazitakoaren arabera, zerbitzua emateko epea denboraldi batekoa da, nolana ere, bi aldeen arteko akordioa egonez gero, hau urtero luzatu ahal izango da, gehienez lau denboraldi egin arte.

Bi aldeak adostutakoaren arabera, 2017ko abenduaren 31ko epearekin onartutako luzapena igarotzeaz dagoenez, eta bi aldeen borondatea zerbitzu horiek ematen jarraitzea izanik, kontratuaren urtebeteko luzapena egitea proposatzen da.

Horrenbestez, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehen.- Zegamako polikiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierri Kirol Teknikoak enpresari, 2018ko abenduaren 31ra arte luzatzea, sinatutako kontratuaren arabera baldintza eta zenbateko berdinekin.

Bigarrena.- Goierri Kirol Teknikoak enpresak, kontratazioa arautzen duten administrazio-baldintza zehatzak eta teknikoak bete beharko ditu. Era berean, “Lan Arriskuen Prebentzio” araudian ezarritakoa bete beharko du, horretarako Udalak eskatuko dizkion agiriak aurkeztu beharko direlarik.

Era berean, gizarte segurantzarekiko eta zerga betebeharrak beterik dituela frogatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira jakinarazpen hau jaso eta hamabost eguneko epean, (lehendik aurkeztuta ez badaude) edo kontratazio berriak egiten direnean.

Hirugarrena.- Igerilekuak martxan jartzeko izapideak bete beharko dira Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eskatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Dagozkion ondorioetarako erabaki hau Juan Ignacio Moyua Ayala jaunari jakinaraztea, Goierri Kirol Teknikoak enpresaren ordeztu eta izenean.

5.- GIPUZKOAKO FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALA. POSTA ZERBITZUAREN LEHEN LUZAPENA.

Zegamako Udalbatzarrak, 2011ko martxoaren 16an egin zuen bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralera atxikitze erabakia hartu zuen.

2015eko maiatzaren 12ko Alkatetza ebazpenaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskuratze Zentralizatuko Sistemaren barnean posta zerbitzuaren buruzko esparru-akordioari atxikitzea erabaki zen.

Diputatuen Kontseiluaren eskuordetza medio, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuak 2015eko urriaren 28ko foru aginduaren bitartez, SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A (IFZ.: A83052407) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez X15019 zenbakiko espedientea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatze esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Horrenbestez, Zegamako Udalak, Toki Gobernu Batzarrak 2016ko urtarrilaren 19an egin zuen bilkuran, hau erabaki zuen: esleitzea "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X15019) , SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A (IFZ.: A83052407) enpresari, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan. Zerbitzuko Kontratua 2016ko otsailaren 5ean sinatu zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak, 2017ko azaroaren 14an emandako agiduaren bidez, adierazitako esparru akordioaren eta kontratu eratorriaren lehenengo luzapena baimendu du, atxikitako entitateei hau jakinaraziz.

Hau ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako hiru zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehena.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez posta zerbitzuko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X15019), SOCIEDAD ESTATAL DE CORREOS Y TELEGRAFOS, S.A (IFZ.: A83052407) enpresarekin adostutakoa, urtebetez luzatzea, erabaki ziren baldintzetan.

Bigarrena.- Doakienetara erabaki hau jakinaraztea.

6.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 04/012117 erabakia, abenduaren 18koa, 5836 fakturen erlazioa onartuz, guztira 4.842,59 eurokoa.
- 05/012117 erabakia, abenduaren 19koa, 5848 fakturen erlazioa onartuz, guztira 21.828,51 eurokoa.

- 06/012117 erabakia, abenduaren 19koa, 5846 fakturen erlazioa onartuz, guztira 9.500,00 eurokoa.
- 07/012117 erabakia, abenduaren 19koa, Ostatua eta Kasinoko alokairuen fakturak onartuz (urria eta azaroa).
- 08/012117 erabakia, abenduaren 20koa, gaztelekua jarriko den lokalaren egokitzapen lanengatik, Ormazpei S.L. enpresak aurkeztutako 23/2017 faktura onartuz.
- 09/012117 erabakia, abenduaren 22koa, zenbait fakturen onarpena bideratuz.
- 010/012117 erabakia, abenduaren 22koa, udal langileen nominen ordainketa onartuz.
- 011/012117 erabakia, abenduaren 27koa, zenbait fakturen onarpena bideratuz.
- 012/012117 erabakia, abenduaren 27koa, 5998 fakturen erlazioa onartuz, guztira 32.820,18 eurokoa.
- 013/012117 erabakia, abenduaren 28koa, zenbait fakturen onarpena bideratuz.
- 014/012117 erabakia, abenduaren 28koa, 6046 fakturen erlazioa onartuz, guztira 15.764,05 eurokoa.
- 015/012117 erabakia, abenduaren 28koa, 17 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira, 17.831,77 eurokoa.
- 016/012117 erabakia, abenduaren 29koa, zenbait gizarte laguntzen ordainketa bideratuz.
- 017/012117 erabakia, abenduaren 29koa, zenbait fakturen onarpena bideratuz.
- 01/01118 erabakia, urtarrilaren 4koa, zenbait fakturen onarpena bideratuz.
- 02/01118 erabakia, urtarrilaren 12koa, zenbait fakturen onarpena bideratuz.
- 03/01118 erabakia, urtarrilaren 24koa, 18 zenbakidun fakturen erlazioa (abendua) onartuz, guztira, 15.583,57 eurokoa.
- 04/01118 erabakia, urtarrilaren 24koa, 19 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz (abendua), guztira, 26.839,71 eurokoa.
- 05/01118 erabakia, urtarrilaren 24koa, 1 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila) onartuz, guztira, 73.205,13 eurokoa.
- 06/01118 erabakia, urtarrilaren 25koa, Udal Hilerrian, duela hamar urte baino gehiago hilobiratuak izandako gorpuen hobitik ateratzea ebatziz, eta dagokion prozedura bideratuz.

7.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoyena zinegotziak (EH Bildu), liburutegian Zegamako fototekako liburu berriak daudela ikusi duela dio. Zentzu horretan azaltzen du, argazkietako batean "caídos por Dios" dioen plaka baten irudia azaltzen dela eta ez litzatekeela egon beharko. Alkateak adierazten du, ez dakiela zehazki lan hori zer-nola egin zen, eta horrenbestez, gaia aztertuko duela.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta hogeita hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2018.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO